



EDATEKO UR-HORNIDURAN INTZIDENTZIA

Joan den abenduan, 10 egunez, Okondoko herritar guztiek arazoak izan genituen urarekin gure etxeetan, hornidurako sarean hainbat intzidentzia egon zirelako; sare horrek ura Ugalde auzotik udalerriko hiriguneraino eramaten du.

Jarraian, nola funtzionatzen duen eta udalerrria nola hornitzen den azalduko dugu. Horren ostean, abenduan zehar gertatutakoa adieraziko dugu.

NONDIK IRISTEN DA URA GURE ETXEETARA?

Okondoko udalerrri osoa hornitu ahal izateko, Okondok 3 alkate-auzo (gune) ditu eta horien bidez hainbat auzori zerbitzua ematen zaie.

1) MENDIETA ALKATE-AUZOA: alkate-auzo honek San Roman auzoari ematen dio zerbitzua eta ura honako bi toki hauetatik biltzen du:

- a. Gaztelu-zahar (mineral-iturburua (burdina), 2020an lurperatu zen)
- b. Garbe (kareharri-iturburua, gainazalekoa).

Bilketa horiek kutxatila batean batzen dira, eta gero, kanalizatuta, Aspurun dagoen etxola bateraino jaisten dira. Bertan kloratu egiten da eta Mendietako biltegietara eramaten da gerora banaketa egiteko.

2) LANDETA ALKATE-AUZOA: alkate-auzo honek Landeta bidea, Laburu bidea eta Untzaga auzoei ematen die zerbitzua. Ura Gallarraga mendiaren hegala azpiko iturburuetatik (mineral-iturburuak eta lurperatutakoak) biltzen du.



Bilketa horiek, Mendietan egiten den moduan, kutxatila batean batzen dira eta Landetan dauden biltegiataraino (edukiera: 130m³) doaz kanalizatuta, bertan ura kloratu eta gorde egiten banatzeko.

3) OKONDO ALKATE-AUZOA: alkate-auzo honek zerbitzua ematen die udalerriko hiriguneari eta behe-auzo guztiei. Hirigunean dagoenean Markuartu eta Basoalduko biltegiatarara ponpatzen da, handik auzo horiei zerbitzua emateko.

Alkate-auzo horrek herritarren gehiengoa hornitzen du.

Bost bilketa-puntu ditu bi eroanbideetan banatuta:

- Lehenengoa Ugaldeko eroanbidea da. Ibaian gora dauden 2 bahek bertatik hartzen dute ura (kareharrizkoa).

Eroanbide horrek arazoak sortzen ditu; izan ere, euria egiten duenean ura uhertasun handiz jaisten da eta askotan ezin da tratatu ere egin. (Tratatzeke instalazioaren mugak). Hori ekiditeko eta biltegitratutako daukagun ura ez kutsatzeko, ur gordinaren biltegia baino lehenago turbidimetro bat (uhertasuna neurtzen du) dago jarrita. Emaitzaren arabera, tratatu badaiteke biltegiara bidaliko da eta tratatu ezin denean itsasadarrera botako da (uretan uhertasun-kopuru jakin batetik gora instalazioak ezin du iragazi).

- Bigarren eroanbidea Asunsa izenekoa da, honela banatutako hiru bahe ditu:
 - Lehenengoa Asunsako itsasadar nagusian dago.
 - Bigarrena itsasadarrean itsasoratzen den ibaiadarrean (erreka) dago.

Biak kareharrizkoak dira, Ugaldekoen moduan.

- Hirugarrena Las Cuevas izeneko iturburutik datorren bilketa da.

Hori, aldiz, mineral-iturburua da (burdina).

3 bilketa horiek bakartuta heltzen dira etxola bateraino.

Heltzen direnean, biltegi txiki batean batzen dira eta hodi-biltzaile berberetik jaisten dira ur gordinaren etxolaraino. Ugalden, ordea, orografia



eta landarediagatik, iturburua erregularragoa da eta ez du ia uhertasunik sortzen; hortaz, beti da egokia tratatzeko.

Ugalde eta Asunsako ura ur gordinaren biltegian dagoenean edateko uren araztegia (EUA) eramaten da eta sartu baino lehenago sailkatzen duen beste turbidimetro batetik igarotzen da. Neurketa egokia bada, EUAra igarotzen da; baina, ez bada egokia, itsasadarrera botatzen da.

Jarraian, eta EUAren barruan, ura 2 harea-iragazkitatik eta edateko ur bihurtzeko prozesu batetik igarotzen da; hala, ura kontsumitzeko egokia izango da.

Prozesu hori amaitzen denean, araztegitik irtengo da eta bilketa- eta banaketa-biltegiara doa kontsumitzeko prest.

EUAtik irteten denean hirugarren turbidimetro bat dago Horren funtzioa kontrolatzea eta mantentzea da. EUAra sartzerakoan eta bertatik irtendakoan izandako neurriak alderatuta, badakigu araztegia nola ari den funtzionatzen eta balizko esku-hartze eta hobetzeak baloratzen ditugu.

EUA 2019ko udazkenean berriztatu zen eta funtzionamenduan jarri zen, turbidimetroak jarri , harea-biltegiak konpondu eta instalazioa automatizatu zen.

Informazio gisa, azaldutako prozesu guztia **“uraren goi-hornidura sarea”** da eta banaketa-biltegitik erabiltzaileengana doazen eroapen guztiak **“uraren behe-hornidura sarea”** dira.

JOAN DEN ABENDUKO GERTAKARIA

Azaroa eta abendua oso euritsuak izan dira, 21 egunez jarraian euri gogorra egin du. Duela 10 urte baino gehiago erregistroek ez zituzten horrelako datuak markatzen, eta aurreko urteetan baino hiru gehiago egin zuen euria aldi horretan.. Kopuru horrek hainbat udalerritan arazoak eta gertakariak sortu ditu, hala nola, uholdeak, luiziak...

Okondon ere kalteak pairatu ditugu. Euriengatik eta ibaien ur-goraldiengatik bilketa guztiak arriskuan egon ziren, kolapsatuta zeuden eta biltegiara ez zen ura heltzen. Ur-sarrerarik gabe eta biztanleriaren batez



besteko kontsumoa 25 m³/h dela jakinda, biltegietako maila gutxitzen hasi zen.

Horren berri izan genuen unetik bertatik hasi ginen lanean, ahalik eta azkarren konpondu ahal izateko. Bilketetara igo ginen eta garbitu egin genituen, baita eroanbideak ere. Ugaldetik zetorren adarra zerbitzuan gelditzea lortu genuen. Arazoa zen Ugaldeko ura (lehenago esan den moduan) euria zela-eta oso uher zetorrela eta ez zela egokia tratatzeko.

Bestalde, ezinezkoa zen Asunsako ura eskuz libratzea, eta baliabide mekanikoak erabiltzea erabaki zen. Bitartean 5 m³/h jaistea lortzen zen, normalena 30-40 m³/h jaistea bada ere. Hainbat egunez lanean aritu ziren matxura non gertatu zen aurkitzeko, eta hilaren 10ean, ostiralean, 17:30ean lortu zuten aurkitzea.

Abenduaren hasieratik, sartu baino ur gehiago ateratzen zen biltegietatik eta erabaki genuen gauez hornidura-eteteak egitea, egunez zerbitzua bermatzeko (bitartean garbitze- eta libratze-lanak egiten jarraitu genuen normaltasunera itzultzzen ahalegintzeko; izan ere, bilketak egunero urpetzen ziren).

Horrela, abenduaren 10era, ostirala, iristea lortu genuen, eta horixe izan zen inflexio-puntua. Zoritxarraz, abenduaren 9tik 10erako gauean beste buxada bat izan genuen, eta, horren ondorioz, ez zen sartzen udalerrian hornidurari eusteko adinako ur-kopururik; beraz, ostiralean zenbait herritar zerbitzurik gabe geratu ziren.

Hilaren 10ean bertan (ostirala), 17:30era aldera, Asunsako iturburuko matxura aurkitu genuen, baina ilunabarra zenez eta astirik ematen ez zuenez, segurtasunagatik, arratsalde hartan material guztia prestatzea erabaki genuen, larunbat goizean, hilaren 11n, konpontzeko.

Larunbatean, 12:00ak aldera matxura konpondu eta zerbitzua berrabiarazi zen. Beste ezusteko bat hartu genuen ur gordinaren biltegitara konponketa egiaztatu eta baieztatzerako joan ginenean: ez zen uririk iristen.

Dauden kutxatila guztiak berrikusi genituen, eta beste buxada bat aurkitu genuen (garrantzi txikiagokoa). Hala ere, hainbat maniobra egin eta elementu batzuk desmuntatu ondoren, konpontzea lortu genuen.



Orduan bai, ur gordinaren biltegiara 40 m³/h sartzen ziren, eta 14:00ak aldera amaitutzat ematen genuen esku-hartzea.

Jarraian, larunbatean, hilaren 11n, arratsaldean, urik gabe geratu zen bizilagun baten abisuari esker, hodi osoa garbitu genuen; izan ere, biltegiak hustu zirenean, aurreko egunean hodietan metatutako aire-poltsek ez zuten ura pasatzen uzten eta tapoi efektua eragin zuten. Ordurako ez zen biltegien arazoa, % 25ean baitzeuden. Halako aire-poltza sortu zen, ezen ura ez baitzen hirigunera iristen.

Abenduaren 12an eta 13an lanean aritu ginen egun eta gau, sareko aire-poltza guztiak kentzeko.

Gauetz, udalerria lo zegoen bitartean, emaitza positiboak lortzen genituen: udalerrri osoan ura genuen; baina, udalerria esnatzen zenean, goiko aldeak hornidurarik gabe geratzen ziren.

Egoera hori ikusita, hilaren 14an (asteartea), beste udalerrri batzuk biltzen dituen partzuergoari (CAKU/Urbide) mota horretako zerbitzuak ematen dizkion enpresara jo behar izan genuen, Udalaren lanak indartzeko.

Lehenik eta behin, adierazi ziguten dauden bentosa gehienak (hodietatik airea ateratzen duten balbulak) hondatuta zeudela eta ez zutela beren funtzioa betetzen. Bentosa horiek orain dela 20 urte baino gehiago instalatu ziren eta ez zaie mantentze-lanik egin. Bentosak aldatzea gomendatu ziguten.

Bigarrenik, biltegietatik gertu deskarga bat egin eta irteera-emariak begiratu behar dira, ikusi baitzuten biltegiako irteeran bertan dagoen kontagailuak emandako datuak ez zirela normalak.

Jarraian, errekan behera beste kontagailu bat dagoen kutxatila batera joan ginen, hark sor baitzezakeen arazoa. Desmuntatu eta beste ezusteko bat jaso genuen: ukabil baten tamainako harri bat zegoen bertan. Harri hori kendu ondoren, ikusi genuen harri horrek eragozten zuela biltegiatiko ura erabiltzaileengana iristea.



Lan horiek guztiak asteartean, hilaren 14an (bentosak ordeztu ziren) eta asteazkenean, hilaren 15ean, (kontagailuan buxadura) egin ziren; konpondu ziren une berean, hornikuntza berrezarri zen eta udalerria normaltasunera itzuli zen, 10 eguneko gorabeherak atzean utzita.

Ondorio gisa eta laburbilduz, esan dezakegu intzidentziak iraun zuen egun horietan bi matxura-mota gertatu zirela: batetik, goi-banaketa sarean, eurite guztien ondorioz; eta, bestetik, behe-sareko matxura, hodietan airea sartzearen eta kontagailuan aurkitutako harriaren ondorioz, uraren igarobidea mugatu baitzuten.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udalerriko herritar guztiei euren pazientzia eta ulermenagatik, eta, halaber, aintzatetsi egin nahi dugu udal-langileek egindako lana, bai eta ur-horniduraren zerbitzua ahalik eta arinen berrabiarazteko etengabe lanean aritu diren hirugarren pertsonena ere.

Gogoratu behar da Okondoko Udala, Andrés Alcalde alkate zela, Kantauriko Urkidetza (CAKU) ur-partzuergoaren sortzailea izan zela 1999an, eskualdeko beste udalerrri batzuekin batera, eta hamar urte geroago (2009ko uztaila), aldiz, Andrés Alcaldek berak, bere gobernu-taldearekin batera (Sergio Tato alkateordea eta, aldi berean, ur partzuergoko (CAKU) presidentea ere talde horretakoa zen) partzuergoa uztea erabaki zuela, partzuergoak uko egin baitzion Okondo Maroñoko sarera atxikitzeari. Harrezkero, Okondoko Udala arduratzen da kontrol- eta zaintza-unitateaz (KZU), eta hornidura-sare hori guztia mantentzeaz. Aitortu behar da, eskura ditugun baliabide urriak kontuan hartuta, zaila dela, eta, oraingoan gertatu den bezala, ezohiko egoerak daudenean, gure kontroletik kanpo geratzen direla eta asko zaildu egiten dela ur-hornidura bermatzea.

Udalak lanean jarraituko du, etorkizunean Okondoko bizilagunei hornidura beti bermatu ahal izateko.

Mila esker eta barkatu sortutako eragozpenak.

